

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko azaroaren 8a. IX. urtea. 2.430. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



A. JIMAZ

→ **SAM enpresako langileak, borrokan.** Hilabeteetan zurrumurruen beldur izan eta gero, herenegun egi bihurtu ziren; zuzendaritzak zortzi langile kaleratzeko agindua eman zuen, «zortzi langile bazterrean» utziz, salatu dute langileek. Langile hauek 53 eta 60 urte artean dituzte. SAM enpresako langileak, hala ere, borrokatzeko prest daude, eta aste honetan lau orduko lanuzteak egingo dituztela iragarri zuten atzo, Tolosako Trianguloa plazan eginiko elkarretaratzean (irudian). Astelehenean protestak areagotuko dituzte eta greba mugagabearen hasiko dira. ◻3

Hamaika kultur ekitaldi, Alegian, abenduaren 19a bitarte

Bihar, 17:30ean, 'Katillukadak' haurrentzako antzezlanak ikusi ahal izango da; Garai Bateko Alegiako argazkiak ere ikusi ahal izango dira ◻6

Gaur hasiko da Tolosako Bonberenean, Literature & Art ekimena

Yoseba Peñak 'Hodeien adorea' liburua aurkeztuko du, 19:00etan; bihar Napoka Band taldearen azken emanaldia ikusi ahal izango da ◻2

Austriako Innsbruck hiriko isiltasunarekin gozatu du Isidro Larrañaga orkestrak

Tejado de Oro plazan eskaini zuten emanaldia; taldeko 27 kide izan dira bidaian, eta oraingoan kolaboratzaileak ere alboan izan dituzte ◻4



harpidedunak **TXOKA hitza**



Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

LAGUN ARO GBC
Unicaja
saskibaloia partida

Azaroak 11 • Igandea
18:00
Donostiako Ilunben



Napoka Iria banda formatoa ikusteko azken aukera izango da, bihar, Bonberenean. JON IRIALUNDEGI-NAPOKA BAND

Napoka Banden azken emanaldia bihar izango da, Literature & Art egitarauan

Gaurtik azaroaren 29ra bitarte, literatura eta arteari eskainitako jarduerak izango dira Bonberenean

Itzea Urkizu

Miren Narbaiza eta Ander Mujika dira, Napoka Iria duetoko musikariak, eta badaramatzate jada, zenbait hilabete, oholtzara banda formatuak igotzen, Napoka Band gisa. Bihar izango da, Napoka Iriaz formato honetan gozatzeko azken aukera, Bonbereneako Literature & Arte astearren barruan.

Napoka Iriaren abestiak beste-lako instrumentuekin aberasteko, eta oinarrian duten blues-ari rock kutsu handiagoa emateko, Willis Drummond eta Andraka musika taldeetako hiru kideekin osatu zuten Napoka Band. Bira arrakastatsua bihar amaituko da, Tolosan, eta baliteke boskotea kantatu berriak sortzeko berriz ere

elkartzea. Musikaz gain, kulturaren beste adar bat jorratzeko asmoz hasi ziren, Bonberenean, Literature & Art antolatzen; herriarren literatur eta irakurzaletasunarekin loturiko jarduerak nahi zituzten.

Bide horretan, hirugarren Lite-

rature & Art izango da aurtengoa, eta letren munduaz haratago, musika emanaldiak eta proiektioak ere eskainiko dituzte.

Gaur hasiko da egitaraua, 19:00etan, Yoseba Peñaren *Hodeien adorea* liburuaren aurkezpenarekin.

↓ Egitaraua

AZAROAK 8, GAUR

■ **19:00.** *Hodeien adorea* liburua aurkeztuko du Yoseba Peña egileak.

AZAROAK 9, BIHAR

■ **22:30.** Napoka Band-en kontzertua. Napoka Iria formato honetan ikusteko azken aukera izango da.

AZAROAK 15, OSTEGUNA

■ **19:00.** *Des-egiten* poema bildumaren irakurketa egingo du Ione Gorostazu idazleak berak.

AZAROAK 22, OSTEGUNA

■ **19:00.** Iker Arranz tolosarrak *Bilbopunk89* liburua aurkeztuko du.

AZAROAK 23, OSTIRALA

■ **22:30.** Mikel Markez eta Erramun Martikorenen kontzertua izango da.

AZAROAK 24, LARUNBATA

■ **22:30.** Euritan poesia erreztaldia: Txoan Ormazabal, Eneko Aranburu eta Desordutan ariko dira.

AZAROAK 29, OSTEGUNA

■ **19:00.** Jon Maiaren *Gazta zati bat* dokumentala.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAERAK

Etxeko lanak. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Telefonoak: 943 69 68 82 / 606 5219 92.

Topic-i diru laguntza handiagoa emateko eskatu du PSE-EEK

Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu honekiko «konpromiso falta» erakutsi duela nabarmendu dute

I. Urkizu

2013ko aurrekontuetan Topic zentroari diru laguntza handiagoa emateko eskatu dio PSE-EEK, Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Gloria Vazquez sozialistak, 2012. urtean Topic zentroak eskualde erakundearen nazik espainiarren aldetik jaso dituen laguntza

ekonomikoak gogora ekarri ditu Batzar Nagusietan: «Zehazki, Patxi Lopezen Eusko Jaurlaritzatik 125.000 euro, Espainiako Kultura Ministeriotik 94.000 euro eta udalaren aldetik 35.000 euro jaso ditu. Foru Aldundiak, berriz, 13.000 eurorekin soilik lagundu dio zentroari», gaitzetsi zuen Vazuzezek.

Markel Olanoren garaia nahiz oraingo aldundiak, proiektu honekiko «konpromiso falta» duela uste dute sozialistek, eta kultur arloan, bereziki Donostia 2016en Topic-ek izango duen tartea medio, laguntzak handitzeko eskatu dute: «Orain ez da kultur proiektuak gelditzeko garaia».

Irudia ◊ Tolosa



100 URTEAK OSPATUZ

Zamoran (Espainia) jaio zen Onesima Rojo Losada. Nerabea zela, ordea, Tolosara joan zen gurasoekin, eta neskame lanetan hasi zen. 100 urte bete zituen atzo, eta Ibai Iriarte alkateak lore sorta oparitu zion, Tolosako Udalaren partetik. Onesima Rojok «poz handia» sentitu zuela azaldu zuen behin eta berriz, eta bere seme-alabez, hilobez, bilobez eta birbilobez lagunduta ospatu zuen mende beteko urtemuga. ITZEA URKIZU

✉ Gutuna

Etxe kaleratzeen aurkako 1.020 sinadura

Tolosaldeko M15-ek Tolosan, Andoainen eta Ordizian egindako sinadura bilketaz informatu nahi zaituzte, ordainak ematearen aldeko Herri Ekimen Legegitza bultzatzeko. Guztira, 1.020

sinadura jaso ditugu, eta eskerrik eman nahi dizkiegu sinatzaile guztiei.

Guk hitza ematen dugu, eta jarraituko dugu, etxe kaleratzeen aurkako borrokan. Baina jakin badakigu helburu hori lortzea zaila izango dela, herritarren eguneroko lanaren babes ez badago.

Gogoratu astelehenero egiten dugula batzarra, 19:30ean, Tolosako kultur etxean. Iritziak eman eta entzuteko tokia duzu hau, eta bestela, honakoak erabil ditzakezu: tolosa15m@gmail.com, stopdesahucios@plazan.net eta <http://stopdesahucios.plazan.net>

■ **Tolosaldeko M-15.**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosako Trianguloa plazan elkartu ziren SAMeko langileak, atzo. Kaleratzeen aurkako elkarretaratzea egin zuten bertan. A. IMAZ

Zortzi langile kaleratu dituzte Tolosako SAM enpresako arduradunek

Lau orduko lanuzteak egingo dituzte aste honetan; astelehenean, greba mugagabeari hasiera emango diote

Asier Imaiz Tolosa

Tolosako SAM enpresako langileek bururik altxa gabe jarraitzen dute. Ustezko kanporaketan presiopean lanean ibili ondoren, zurrumurrua egi bilakatu da: Enpresako arduradunek zortzi izeneko zerrenda aurkeztu zuten herenegun.

«Zortzi langile bazterrean utzi dituzte». Hitz hauek entzuteko

aukera izan zen atzo, Tolosako Trianguloan, SAMeko langileek egindako elkarretaratzean.

Hainbat herritar, mobilizazioaren ondotik pasatzean, pankartari begira gelditu zen, ea zer jarri zuten irakurtzeko. Langileekin bat egin zuenik ere izan zen, edo gutxi gutxi, elkartzasuna azaltzeko eurekin hitz egiteko tartea hartu zuenik.

53 urtetik 60 urte bitarteko zortzi langile kaleratu dituzte SAM lantegiko arduradun ekonomikoek, eta jubilaziotik at utzi dituzte, lantegian 30-40 urte lan egin ondoren. Enpresako akzioen %89a, Madrilen egoitza duen Tompla multinazionalak dauka.

Kaleratzeen berri izan bezain

pronto, bulego eta tailerreko langileek mobilizazio egutegia antolatu zuten. Aste honetan, errelebo bakoitzak lau orduko lanuzteak egingo ditu, eta astelehenean aurrera, greba mugagabearekin hastea aurreikusten dute. SAMen ordezkariak sindikala LAB, CCOO eta independentistek dute, eta guztiak bat egin dute ekimen hauekin.

«Botata utzi dituzte»

Gutun azalak egiten dituen SAM lantegian, kaleratzeen ondorioz, 74 langile gelditzen dira. Horieta-ko bat Iker Mujika da, LAB sindikatuaren ordezkarietako bat ere badena. Bere esanetan, gauzak aldrebesten duela hiru urte hasi zi-

ren: «2009an, guztion lanari esker, diru bat zegoen kontu korrontean. Madrileko akzionista nagusia diru hori banatzen hasi zen, enpresa erabat deskapitalizatu. Ondoren, dirurik ez zegoela esanaz, enplegu erregulazio espeditentek, kaleratzeak, soldata jaitziera... jarri zituzten martxan».

Denbora horretan, langileek eginiko esfortzuek erantzunik ez dutela jaso ere salatu du Mujikak: «2009an adibidez, enplegu erregulazio espeditente bat sartu zigiten. Lan Ordezkariatzatik horretarako arrazoirik ez zegoela esan zuten. Enpresatik esfortzu da egiteko eskatu zigiten, eta guk onartu egin genuen. Espeditentea

2010ean bukatu zen, eta urte horretako urrian, lau langile kaleratu zituzten».

Erregulazio espeditentean

Egun, SAM enplegu erregulazio espeditente berri batean dago. Zortzi kaleratzeak arrazoitzeko, salmentak eta galera ekonomiko zein produktiboak aipatzen dituzte arduradunek, Mujikaren esanetan. «Sindikatuarekin hizketan egon gara, eta SAMen egoera zortzi langile kaleratzeko moduko ez dela esan digute. Eskualdean badira egoera okerragoan dauden lantegiak», gaineratzen du LABen ordezkariak.

Zortzi lankideak oso baldintza txarretan gelditu direla dio Iker Mujikak, eta gutxienez, hauen irtenbide duina eskatzen dute: «30-40 urte pasa dituzte lantegian, eta botata utzi dituzte. Legeak esaten duena emango dutela diote beraiek, hau da, ezer ere ez. Dirua izan badute. Tomplak duela gutxi Txekian lantegi berri bat erosi du. Zortzi langile hauei irteera duin bat ematea zer kostatzen zaie?».

Kaleratzeak salatzeo eta irtenbide duinak eskatzeko greba mugagabea hasiko dute hilaren 12an. Sindikatu eta langile guztiak bat egin dute mobilizazioarekin.

Iker Mujikaren esanetan, arrazoi hauez gain, azken urteetako lan baldintzak ere salatu nahi dituzte ekimenarekin: «Hiru urte gelditu gabe gabiltza, arazoak arazoan gainean. Enplegu erregulazio espeditenteak direla eta ez direla, kaleratzeak, soldata jaitziera... lanera ez gara lasai joaten; lantokira sartu orduko ez baitakigu zer aurkituko dugun egun horretan. Ez dago egonkortasunik, eta baldintza hauetan ezin da ondo lanik egin. Guzti honekin amaitu beharra dago, behingoz».

Tolosako SAM lantegiko langileek, ondorengo egunetan mobilizazio gehiago egingo dituzte, eta emango dute horien berri.



Gutuna

Larunbatean, denok Baionara!

‘Giza eskubide guztiak, Euskal Presoak Euskal Herrira!’ lelopean egingo da manifestazioa.

Hamarkadetan luzatu den gatazkari konponbide justu bat eman eta denon artean bakea eraikitzeko aukera berriak zabaldu dira Euskal Herrian. Bide honetan bat egin dute azken hilabeteotan erakunde eta kolektibo ugari gure herrian, eta helburu honetan aurrera egiteko, bidelagun ditugu nazioarteko pertsona eta eragile ugari ere.

Gatazkaren oinarriak eta on-

dorioak konponduko dituen bidea da denon artean egin nahi duguna. Munduko beste hainbat herrialdetan bezala, gurean ere beharrezkoa izango da preso eta ihesean diren herritarren afera konpontzea.

Espainiar eta frantziar espetxeetan dauden euskal preso politikoen giza eskubideak errespetatzea berehala hartu beharreko neurria dela pentsatzen dugu.

Zentzu hortan, eta Aieteko Nazioarteko konferentzian (2011ko urriaren 17an) bildu ziren adituak aholkuei jarraituz, 2012ko azaroaren 10ean,

15:30ean, Baionako karraketan manifestatzeraz dei egiten dizugu, ondoko lehen aldarrikapenen inguruan:

- Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea.

- Eritasun larriak dituzten presoek libratzea.

- Bizi osorako espetze zigorrera daramaten legedi berezien deuseztatzea. (Espainian 1977/2006 doktrina eta *perpetuite* kondena Frantzian).

- Zigorren bi herenak edo hiru laurdenak bete dituzten presoek libratzea, eta Frantzian baldintzapean askatuak izan daitezkeen presoek libratzea.

- Isolamendu egoerekin bukatzea.

- Euskal iheslari politikoen aurkako jazarpenarekin betirako amaitzea.

Bai, iritsi zaigu garaia, Eukal Herriko hiritar orori, izan jatorri, ideia politikoa edo erlijioso des-

berdinetako, bakearen eraikitzaile izateko; hau da, Euskal Herrian bakea izan dadin sortzen ari den herri dinamikaren aktore zuzenak izateko.

Horregatik, larunbatean Baionan ikusiko gara!

■ **Tolosaldeko Herrira.**



Bizi osorako espetze zigorraren aurkako manifestazioa, Tolosa. R. CALVO

Innsbrucken «gozatu» dutela dio Larrañaga orkestrak

Austrian izan dira orkestrako 27 kideak, eta kalean eman dute kontzertua; urtero egiten dute bidaiaren bat

Hemen kalean eskaintzen dituzten kontzertuetan isiltasuna izatea ia ezinezkoa dela argitu du, eta Innsbruckeko plazan izan zuten isiltasunarekin «gozatu» egin zuten, eta beraien lanarekin ere «oso gustura» geratu ziren.

Gainera, oraingoan, kolaboratzaileak ere izan zituzten. Obra batean, Elene Arandia abesten, eta Ander Zubillaga gitarrarekin aritu ziren. Hauez gain, Udaberri dantza taldeko Onintze Hartsuaga, Garazi Artetxe eta Juan Urretabizkaia dantzariak ere alboan izan zituzten emanaldia borobiltzeko. Bertan, besteak beste, euskal obrak diren Guridiren *El Caserio* eta *Agurra* jo zituzten. Obra klasikoek gain, modernoagoak ere eskaini zituzten: *Praefugium Nr. 1 aus dem Zyklus, Dichter und Bauer*, *The Lord of the Dance* eta *Ghost Love Score*.

Emanaldiaz gain, bidaia turismoko pixka bat egiteko baliatu zu-



Isidro Larrañaga gidari dutela, Innsbruck hiriko Tejado de Oro plazan eskaini zuten kontzertua. HITZA

E. Maiz Tolosa

Tolosako Isidro Larrañagaren orkestra Austrian ibili da pasa berri den zubian. Innsbruck hiriko Tejado de Oro plazan eskaini zuten kontzertua, hilaren 2an. «Gozatu egin genuen benetan», adierazi du Isitxo Larrañagak.

Taldeko 27 kide izan ziren bidaiaren. Eguraldia lagun izateaz gain, oso ondo atera zitzairen dena. «Kalean egin genuen kontzertua, eta erantzun oso ona izan genuen», argitu du Larrañagak. «Isiltasun guztia izan genuen. Nabari da musika maite dutela, eta ulertzen dutela», gaineratu du.

ten. Austria ezagutzeaz gain Suitzako eta Alemaniako hiri batzuk bisitatu zituzten.

Urte guztiko lanaren ordaina

Astero-astero lokalean sartu, eta entseguak izaten dituzte Isidro Larrañaga orkestrako kideek. Taldekoak honelako bidaia bat merezi zuela gaineratu du Larrañagak. Egoera ekonomikoaren eraginez, lehiaketa gero eta gutxiago antolatzen dira, eta gusturatu hartu zuten Austriatik egindako gonbita.

la urtero saiatzen dira mota honetako irteeraren bat egiten.

● tolosa@hitza.info



Udaberri dantza taldeko dantzariak ere lagundu zieten, bidaiaren. HITZA

Egin HITZAko harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

OPARI

... HITZAren harpidedunen artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu

hitza info harremanetarako: 902 82 02 01 harpidetza@hitza.info

XXII. Herri Krosean izena emateko aukera dago

Ikaztegiatako Herrigintza elkarteak antolatzen du; hilaren 17an izango da, eta 16:30ean hasiko da

E. Maiz ikaztegieta

Egun hauetako urduritasun eta prestaketa guztiak Behobia-Donostia lasterketari begira izango dira, baina lasterketetan parte hartu nahi dutenek Ikaztegiatan ere badute aukera. Aurtengoa, Behobia eta gero izango da, hilaren 17an, larunbatean.

Herrigintza elkarteak urteak daramatza lasterketa hau antolatzen. Igandetan izan ohi zen, baina iaz larunbatera aldatu zuten, eta aurtengoa horrela izango da. Irteera ordua, 16:30ean izango da, eta 10 kilometro egin beharko dituzte lasterkariak. Herrigintza elkartearen prestaturako hiru itzuli izango dira egin beharrekoak.

Izena aldeztatik eman daiteke, baina baita egunean bertan

ere. Hori bai, izena aldeztatik ematen dutenek 10 euro ordaindu beharko dute, eta egunean bertan 13 euro. Aldeztatik, www.herririkrossa.com webgunean eman daiteke izena. Egunean bertan egin nahi izanez gero, antolatzaileek 15:00etatik 16:00etara emanago dute aukera.

Urteroko ohiturari jarraituz, helduen lasterketa hasi baino lehen herriko haurrek ere beraien lasterketan parte hartzeko aukera izango dute. Kasu honetan, 16:15ean izango dute irteera ordua.

Lasterketa amaitu ostean, parte hartzaileek kiroldegian dutxatzeko aukera izango dute, eta jatekoa eta edatekoa ere ez dira faltako Herrigintza elkartearen eskutik. Nola ez, sariak ere izango dira lehen hiru sailkatuentzat. Herriko lehenek ere urtero jaso ohi dute.

Elkartearen festa eguna izaten denez, gutzia jaso ostean, bazkideek afaria egingo dute elkartearen bertan.

● alegialdea@hitza.info

Tolosako XI. Mus Txapelketa Azkarra jokatu da, larunbatean

Fronton kafetegiak antolatzen du, eta Beotibar pilotalekuan izango da; aldeztatik izena eman behar da

E. Maiz Tolosa

Tolosako Fronton kafetegiak XI. Mus Txapelketa Azkarra antolatu du Babarrunaren astearen barruan. Larunbatean, hilak 10, 16:30ean izango da. Beotibar pilotalekuan prestatzen dute txapelketa, eta bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko du. Lau erregetara, sei hamarreko eta hiru usteletera izango da jokoa. Era berean, epaileen erabakia mugigaitza izango da. Aldeztatik izena eman nahi duten bikoteek, fronton@jeub.org helbide elektronikora idatzi dezakete edo 943 65 14 70 telefono zenbakira deituta. Lehen zortzi bikoteek saria izango dute. Gutzira, 3.350 euro banatuko dira. Irabazleek, 1.300 euro, txapelak eta garaikurrak jasoko dituzte.



Alegiako erretirodunen tabernan ikusgai dauden Jose Luis Albisuren zenbait koadro.

Jose Luis Albisu tolosarraren koadroak ikusgai daude Alegiako erretirodunen tabernan. Olioerliebea teknika erabiliz egiten ditu eta horrek gorpuz berezia ematen die artelanei. Autodidakta da eta orain 30 urte hasi zen Albisu koadro horiek egiten.

Bizia hartzen duten artelanak

Imanol Garcia Landa Alegia

Bereziak dira Jose Luis Albisu tolosarraren koadroak. Berak jorratu duen teknika batez egiten ditu, olioerliebea deitu diona. Beira zuntza erabiltzen du, koadroari gorpuz emateko, eta gero olioarekin margotzen du. Beira zuntzarekin erliebea ematen dio bere artelanei eta horrek indar berezia ematen die, bizia hartzen dute. Alegiako erretirodunen tabernan ditu zintzilik hainbat obra eta hil honetan izango dira ikusgai. Olioerliebean egindako koadroez gain, egur gainean olio margotutako zenbait artelan ditu.

Orain 30 urte hasi zen koadroak sortzen Albisu. «Bai ehun gisa edo pasta gisa ere beira zuntza erabiltzen dut. Zaila da berarekin lana egitea, baina oso sendoa da

kolpeen aurka eta malgua ere bada. Ni margolaria naiz, eta nire ofizioan erabiltzen dugun materiala da. Zementua ere erabiltzen dut, itsasgarriarekin nahastuta, baina batez ere beira zuntza». Behin koadroa gorpuztu duenean, zenbait egunetan lehortzen uzten du, eta ondoren olio margotzen du.

Betidantik gustatu izan zaio margotzea Albisuri. Zerbait egiten hasia pentsatu zuen, eta oihal batean margotzen hasi ordez, beste modu batera egitea bururatu zitzaion. Horrela, masarekin hasi zen bere koadroak egiten. «Autodidakta naiz», esan du Albisuk. «Lehenengo irudia egiten dut eta gero nahi ditudan margoak jartzen ditut. Erliebean egon arren, erraza egiten zait margotzea; gustatu egiten zait, eta gustura ari zarenean, ia nahigabe ateratzen zaizu. Oihal gaine-

an margotzearekin alderatuta ezberdina da; irudiak izatean, niri dibertigarriagoa egiten zait eta gehiago betetzen nau. Ia konturatu gabe egiten dut».

Albisuk garbi du, gainera, autodidakta izaten jarraitu nahi duela: «Ez dakit burugogorkeria izango den, baina ez dut nahi inorengandik ezer ikasi. Inork ezer erakutsi gabe noraino iristen naitzen jakin nahi dut». Zenbaitetan eskatu diote teknika erakusteko, baina denbora faltagatik ezezkoa eman izan du. «Oso jende gutxi erabiltzen du horrelako teknika. Beste bi daudela dakit», esan du.

Kritika onak

Bigarren aldia da erretirodunen tabernan erakusten duela bere lana. Orduan erakutsitako ez gain, beste zenbait koadro ditu ikusgai. Horietako bat baserri batena da. Albisu oso gustura dago

lan horrekin eta hori ez du salgai jarri, ezta egurraren gainean egindakoak ere. Beste guztiak salgai ditu. Bere lanetan batez ere eraikinak islatzen ditu. «Eraikinari urte gehiago eransten dizkiot. Nolabait eraikinaren interpretazio bat egiten dut».

Bere lanari buruz kritika onak jaso dituela esan du Albisuk: «Teknika gustatu ez zaienek ere, ondo egina dagoela esan dute». Bere koadroak derrigorrez zintzilik egon behar dutela dio, eta etxean ditueneguz, egun ez du leku gehiago bere artelantzat.

Mauka Berria GAURKO ESKAINTZA
Gozatu Euroligaz zuzenean
CAJA LABORAL BASKONIA
Precios 18€
Maurak 10€
www.mauka.eu berria

Tolosaldeko bertso eskola izango da bertso eskolen topaketan

‘Beeee... eguna’ izenpean ospatuko dute Zarauzko jai eguna azaroaren 24ean; bazkarirako izen ematea zabalik dago

R. C.

Zarauzko bertso eskolak, beste hainbat bertso eskoletako kideekin batera, Euskal Herriko Bertso Eskolen Topaketa antolatatu du azaroaren 24rako, eta bertan izango diren talde eta norbanakoen artean izango da Tolosaldeko bertso eskola.

Beeee... eguna izenpean ospatuko dute jai eguna eta helburua hainbat herrialdetako helduen bertso eskolen artean harremanak egitea eta elkarrekin bertsoaz, festaz eta lagun taldeaz gozatea izango dira, antolatzaileek azaldu dutenez. Bigarren aldian bertsoaren antolatzen dutela, eta iaz, Lesakan, 150 pertsonatik gora bildu ziren.

Egun guztiko jai antolatuko dute, eta egitarauan parte hartuko duten bertsolari, bertso eskola eta, oro har, bertsozaleez gain, mikrofonoak zabalik egongo direla azaldu dute, «festa egun hau Zarautzen elkartzen diren bertso eskolek eta bertsozaleek egingo baitute», esan dute.

Eguna 12:00etan hasiko dute herrian zehar egingo duten bertso potearekin, eta ondoren, bazkaria egingo dute Frontoi zinemaren. Bazkaldu eta gero, bertso jarririk izango dituzte, eta 22:00etan jarraituko du jaiak Putzuzulo gaztetxean egingo dituzten emanaldi bereziekin. Ondoren, Fan & Go erromeria taldearen emanaldia izango da.

Azaroaren 24ko bazkarira joan nahi duenak edota informazio gehiago nahi duenak *bertsoeskolak@gmail.com* helbidera idatzi behar du.

Antolatzaileek Zarauzko Udalaren, Salbatore Mitxelena ikastolaren, Putzuzulo gaztetxearen eta Bertsozale Elkartean laguntza izan dute guztia antolatzeko.



Egaña ere izango da Zarautzen. HITZA



Iazko Garai Bateko Alegia jaialdian jende askok hartu zuen parte, irudian ikusi ditekenez. PATXI RENOBALDES

Kultur ekitaldiez betetako asteak dituzte aurretik Alegiako herritarrek

Bihar arratsaldean ‘Katillukadak’ haurrentzako antzezlan ikusi ahal izango da, kultur etxean

Rebeka Calvo Alegia

Udazkeneko kultur ekitaldiak Alegiara ere iritsi dira, eta abenduak 19a bitarte kulturaz gozatzeko hamaika aukera izango dute, alegiarrek.

↓ Egitaraua

BIHAR, AZAROAK 9

■ **17:30.** *Katillukadak* haur antzerkia, Lankuren eskutik, kultur etxean.

AZAROAK 20, ASTEARTEA

■ **18:00.** *Ez dut zigortu nahi* hitzaldia, Nerea Mendizabalaren eskutik, kultur etxean.

AZAROAK 25, IGANDEA

■ **19:00.** Emakumeenganako Biolentziaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, Intujai teatroyen *Neskeraz* helduentzako antzezlan, kultur etxean.

AZAROAK 26, ASTELEHENA

■ **17:00.** Eñaut Gorbea ipuin kontalariaren emanaldia, liburutegian.

AZAROAK 28, ASTEAZKENA

■ **19:30.** *Azpeitiko esperientzia* euskara eta euskal kulturaren aldeko lanean. Alegialderako *estrategia baten bila* hitzaldia, Enekoitz Esnaolaren eskutik, kultur etxean.

AZAROAK 30, OSTIRALA

■ **22:00.** *Barrura* begiratzeko *leihoak* filma, kultur etxean.



ABENDUAK 1, LARUNBATA

■ **22:00.** *Barrura* begiratzeko *leihoak* pelikula, kultur etxean.

ABENDUAK 2, IGANDEA

■ **Egun guztian zehar.** Dantzari Txiki Eguna, Sutarri dantza taldearen eskutik.

ABENDUAK 3, ASTELEHENA

■ **18:30.** Euskararen Eguna dela eta, kafe-tertulia, udaletxean.

ABENDUAK 12, ASTEAZKENA

■ **17:00.** Maite Franko ipuin kontalaria, liburutegian.

ABENDUAK 19, ASTEAZKENA

■ **18:00.** *Nasrudin eta bere astoa* ipuin kontaketa, Baraka taldearen eskutik, liburutegian.

Lehen bi ekitaldiak, hala ere, izan dira: Txintxarri Eguna eta astearteko Koldo Nuñezen *Nola dakit nire etxea osasuntsua dela?* hitzaldia.

Hurrengo ekitaldia bihar bertan izango da; Lankuren eskainita *Katillukadak* haurrentzako antzezlan ikusi ahal izango da, 17:30ean, kultur etxean.

Ekitaldiekin batera, azaroaren 13tik 17ra, iazko maiatzean izandako Garai Bateko Alegiako bigarren jaialdian herriko argazkilariek ateratako irudiekin osatuta-

ko bideo bat ikusi ahal izango da kultur etxean. Azaroaren 13tik 16ra 18:30etik 20:30era ikusi ahal izango da, eta azaroaren 17an 11:00etatik 12:30era.

Beste erakusketarik ere egingo da; abenduaren 10etik 21era SOS Arrazakeria taldeak osatutako *Bizilagunak* izeneko bilduma ikusi ahal izango da.

Ekitaldien artean, abenduaren 3ko Euskararen Egunean, 18:30etik aurrera egingo duten kafe tertulia nabarmendu dute antolatzaileek.

→ Laburrak

Erretirodunen Eguna, Kultur Elejira bukatzeko

BALIARRAIN › Baliarrainen hil hasieran hasi zuten Kultur Elejira eta igandean, hilak 11, amaituko dute, urteroko moduan, hau da, Erretirodunen Eguna ospatuz. 11:00etan meza nagusia izango dute, 12:00etan hamaiketako egingo dute herriko erretirodun guztientzat, eta 12:30ean solasaldia egingo dute Jakoba Errekondorekin.

Kafe tertulia egingo dute gaur, 14:30ean

BIDEGOIAN › Bidegoiango Udalak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu asmoz kafe tertuliak antolatu ari da eta hurrengo gaur izango da, 14:30etik aurrera, erabileraren zentroan.

Helduen dantza ikastaroak, Udaberriekin

TOLOSA › Udaberri dantza taldeak helduei zuzendutako dantza ikastaroa antolatu ditu. Izena www.udaberri.com helbidean eman daiteke, sartu eta bertan dagoen inprimakia bete. Ikastaroa Usabal kiroledegian izango da asteartero 20:30etik aurrera, eta hileko kuota 10 eurokoa izango da, eta ikasle eta langabetuentzat, 5 eurokoa.

Gaur hasiko da Gainditzen jaialdia

TOLOSA › Gaur hasiko da Gainditzen gorren elkarteak antolatutako zeinu hizkuntzan egingo den lehen filma *El abrazo de los peces* izango da, Leidorren, 19:15ean eta 21:45ean. Bihar berri, 09:30etik 12:30era, ikastetxeetako haur eta gaztetxoek zeinu hizkuntzan egingo den film bat botako dute, kultur etxean.

Bizikidetzako ikastaroa, Baketik-en eskutik

TOLOSA › Baketik-ek bizikidetzari buruzko ikastaroa antolatu du. Programa bost modulutan banatu dute eta lehen hiruk Tolosan izango dira, hilaren 14, 21 eta 28an. Kultur etxean bilduko dira 18:30etik eta 21:00etara. Hurrengo modulua abenduaren 1etik 13ra egingo dute, eta azken saioa abenduaren 15ean, Donostian, izango da, 10:00etatik 12:30era. Ikastaroa doakoa da, eta izena 943 25 10 05 telefono zenbakian, info@baketik.org helbidean edo www.baketik.org webgunean eman daiteke.

→ **Laburrak****Uzturpe ikastolak batzarra egingo du hilaren 22an**

IBARRA ▶ Uzturpe ikastolak ohiko batzarra egingo du azaroaren 22an, Uzturpe ikastolan. 18:30ean izango da lehen deialdia, eta 19:00etan bigarrena. Guraso ordezkari kideen aurkezpena, aurrekontuen azterzea edota errektore kontseilua berritzea izango dira jorratuko dituzten gaietako batzuk.

Aurrera elkartearen ohiko batzarra hilaren 23an

LEITZA ▶ Aurrera elkarteak ohiko batzarra egingo du azaroaren 23an, Aurrerako goiko aretoan, 20:00etan. Batzar honetan 2011-2012ko kontuen onarpena egingo dute, eta elkartearen zuzendaritza bertuko dute. Zuzendaritzako partaide izan nahi duten elkarteak bazkideek fitxa bat bete eta azaroaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dute Aurrerako buzoian edo aurrera@hotmail.com helbidera bidali. Halaber, kirol koordinatzaile izan nahi duenak ere bere burua aurkeztu ahaliko du.

Azoka berezia egingo dute igande goizean, Gaztelun

Etzi haurrentzat bazkaria eta jolasak izango dira, eta igandean azoka eta erretirodunen bazkaria

Iñigo Terradillos Gaztelu

Kultur ekitaldiz beteriko asteburua izango dute datorrena gazteluarrek, izan ere, azken urteetan egin moduan, Gazteluko Udaleko kultur batzordeak eta Erroizpe azpiko kirol eta kultur elkarteak kultur asteburua antolatu dute. Etzi eta igandean izango dira ekitaldiak, eta nabarmentzekoa azken egunak hartuko duen azoka berezia.

Etzikoari dagokionez, herriko gaztetxoeren bazkaria eta gero eskulanak eta jolasak izango dituzte, eta 19:00etan *Gazta zati bat* dokumentala izango da ikusgai eskola zaharrean. Ondoren, denak afaltzeko elkartuko dira elkartearen, eta beste herriko hainbat abeslariren artean Gari eta



Pasa den urtean bezala, aurten ere baserrietako tresnak izango dira. HITZA

Txeperen emanaldiaz gozatu ahaliko da.

Igandea, berriz, azokaren eta erretirodunen eguna izango da. 10:00etan irekiko ditu ateak, eta 14:00ak bitarte herriko produktuekin osaturiko postuak izango dira ikusgai. Eskulanak, erreminta zaharrak, barazkiak edota behiak, ardiak, astoak edo zal-

diak moduko herriko baserrieta-ko animaliak egingo dira, besteen artean. Horrez gain, txikiaren gozamenarako, Asier Lopetegi herritarrek zalgardian paseotxoak egingo ditu.

Azokaren ondoren, erretirodunen eta pentsiodunen Erroizpe azpiko elkartearen bilduko dira bazkaltzeko.

Ibarrako Udalak kultur arloko diru laguntzen deialdia zabaldu du**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrako Udalak irabazi asmorik gabeko kultur taldeei eta elkartei 2012. urtean garatu dituzten edo garatuko dituzten jarduerak eta egitarauetarako diru laguntzak emateko deialdia zabaldu du. Ibarrako udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera, abenduaren 4a baino lehen.

Diru laguntzak ematerakoan kontuan hartuko dituzte erakunde eskatzailearen ezaugarriak eta proposatutako programaren nondik norakoak, hala nola, programak duen ekarpena, euskaren erabilera sustatzen duen, zer ibilbide duen edota berdintasuna sustatzen duen eta kolektibo berezietara zuzendutako jarduerak diren. Eskabideak eta informazioa Benito Izagirre kultur etxean (Euskal Herria kalea, 44), www.ibarrakoudala.net webgunean edo 943 67 03 99 telefono zenbakian eskura daitezke.

Ibarrako egutegirako argazki lehiaketa egingo dute

14 urtetik gorako ibartar orok parte hartu ahaliko du; 'Herria eta herri nortasuna' izango da argazkien gaia

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Udaleko Euskara zerbitzuak datorren urteko udalaren egutegian azalduko den argazkia hautatzeko argazki lehiaketa jarri du martxan. Lehenengo aldiz egingo duten lehiaketa izango da, eta Ibarran jaio, bizi edo lan egingo duten hamalau urtetik gora-

ko edonork parte hartu ahaliko du.

Orain arte Ibarrako Udalaren artxiboko argazki bat hautatzen zen egutegia osatzeko, baina aurten parte hartzea sustatu nahi izan dute: «Ibartarrek parte hartzea nahi izan dugu, bai argazkiak ateratzerako orduan, bai eta horiek aukeratzerako orduan ere», adierazi du Tomas Ugaldebere Euskara zerbitzuko arduradunak.

Parte hartzaile bakoitzak sei argazki aurkez ditzake. *Herria eta herri nortasuna* izango da argazkien gaia, eta originalak izan behar dute, hau da, ezingo da beste

lehiaketaren batean saritua izan den argazkirik aurkeztu. Argazkiak ukitu ahaliko dira, baina euren jatorrizko osaera aldatzen duen elementurik kendu edo gehitu gabe. Koloretan edo zuri beltzean izan daitezke, formatu horizontala eduki behar dute eta bereizmena gutxienez 2 MBkoa. Bestalde, adingabeak agertzen diren argazkirik ez dute onartuko, eta ezta pertsonen irudia iraintzen duten edota diskriminatzaileak diren argazkirik ere.

Argazkiak CD batean itxitako gutunazalean aurkeztu beharko dira Ibarrako udaletxean (San Bartolome plaza, 2) edo Benito

Izagirre kultur etxean (Euskal Herria kalea, 44). Gutunazalean *Ibarrako egutegia 2013 argazki lehiaketa* jarri beharko du, eta parte hartzailearen datuak (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa eta argazkiaren izenburua eta data) jarri beharko dira barruan.

Argazkien aukeraketa

Aurkeztutako lan guztietatik, Ibarrako Euskara eta Hezkuntza batzordeak hautatutako epaimahaiak argazkien aukeraketa bat egingo du. Argazki horiek Ibarrako udalaren web orrian (www.ibarrakoudala.net) jarriko dituzte

ikusgai azaroaren 15ean, eta une horretatik aurrera herritarrek argazkirik gustukoena bozkatu ahaliko dute. Aurkezten den argazki kopuruaren arabera, web orriaz gain, baliteke beste lekuren batean ere erakusketa jartzea, Ibarrako kultur etxean, esaterako.

Azaroaren 30era arte egingo da botoa emateko aukera, eta abenduaren 3an jakinaraziko dute nork jaso dituen boto gehien. Bozka gehien jasotzen dituen argazkia izango da irabazlea, eta datorren urteko Ibarrako Udaleko egutegian agertuko da. **ibarraldea@hitza.info**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



19°
13°

GOIZA	LAINTUTUA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	19°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo @hitza.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea @hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea @hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @hitza.info
Leitzaaldea: 687 410 118. leitzaaldea @hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!

Inhar Ortiz Vicente (Larraul).
Gaur 5 urte. Zorionak bihurritxo etxeko guztien partez eta bereziki aita, ama eta zure arreba Nahiaen partez.

AGURRAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

Irudia Villabona



AHOZKOTASUNA LANDUZ

Urteroko moduan, Mintzola Fundazioak Ahoa Bete Hots jardunaldiak antolatatu ditu. Atzo izan zen lehen saioa eta hitzaldi eta saio interesgarri asko izan ziren eta tartean *Juglarea, puta eta eroa* antzezlan (irudian) ikusteko aukera ere izan zen. Gaur Xabier Amuriza, Andoni Egaña eta Mikel Markez entzuteko aukera izango da, eta azken saioan, ostiralean, hiru ipuin kontalari izango dira: Pello Añorga, Joxe Mari Karrera eta Koldo Amestoi. A.I.MAZ

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azipiroz, L. Amartz auzoa, 9.

Telefonoa: 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

■ **Anoeta.** Kultur eta Kirol Astearen barruan, gaur, EBELeko Begoña Aristik eta Maider Aramendik *Elikaduraren burujabetza eta emakumeen parte hartzea lehen sektorean* hitzaldia eskainiko dute, 19:30ean, udal-letzeko areto nagusian.
■ **Tolosa.** Bonbereneak 111 Akademiarekin batera antolatutako Literature!&Art Astearen barruan, gaur, 19:00etan Yoseba Peñak *Hodeien Adorea* liburua aurkeztuko du, Bonberenean.
■ **Tolosa.** Orixe institutuak *Nolakoak diren nerabeak, aurreiritziak eta mitoak* hitzaldia antolatatu du gaurko. 18:30ean hasiko da, institutuan bertan.
■ **Tolosa.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin elkarretaratzea deitu du gaurko. 19:00etan elkartuko dira Trianguloa plazan.
■ **Tolosa.** Galtzaundi irakurle taldeak Harkaitz Zubiriren *Etxe-kalte* izango du hizketagari, gaur, 19:30ean, kultur etxean.
■ **Amasa.** San Martin jaiak, gaur: 06:00etan, gazteen gosaria Ongi Etorri tabernan, 14:30ean gazteen bazkaria Uxo Toki elkartean, 16:30ean soka dantza eta aurrekua plazan, eta ondoren, trikitalarien erromeria, eta 21:00etan gazteen afaria Iturri Goxo jatetxean.
■ **Villabona.** Mintzolako *Ahoa Bete* Hots jardunaldien barruan gaur, Xabier Amuriza, Andoni Egaña eta Mikel Markez. Saioak goizez izaten dira.

■ **Tolosa.** Beti Gazteak Amaroze-ko erretirodunen elkarteak bi ikastaro antolatatu ditu egoitzan egiteko, josteari buruzkoa eta eskulernetakoa. Ikastaro bakoitzak 40 ordukoa da eta 42 euro ordaindu behar dira. Izena emateko edo informazio gehiagorako 653 747192 (Joxe) edo 635 757 786 (Katy) telefono zenbakietara deitu behar da.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Zine klubean gaur, Gaingintzenen zeinu hizkuntzan egindako film laburren jaialdiarekin bat eginaz, *El abrazo de los peces* botako dute, 19:15ean, eta 21:45ean.

ERAKUSKETAK

■ **Larraul.** Karmele Pellejeroren lanak, ostatuan. Era berean, Koldo Jauregiren aho soinuaren bilduma museo etnografikoan.
■ **Tolosa.** Mariona Masgrau txontxongilo sortzailearen 110 pieza biltzen dituen *Bidaia bat txontxongiloen mundura*, Topic zentroan.
■ **Tolosa.** Box.A elkarrearen *Pornografia* erakusketa, Aranburu jauregian, azaroaren 9a bitarte.
■ **Anoeta.** Kultur eta Kirol Astearen barruan gaurtik hilaren 18ra bitarte, *Hodeien seme-alabak, giza eskubideen egoera mendealdeko Saharan* erakusketa ikusi ahal da, kiroldegian. Euskal Fondoak jarri ditu lanak.

SUMINISTROS 35 urteko esperientzia

YANCI ITURGINTZA eta BEROKUNTZA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Baimendutako instalatzaile eta mantentzailea

Mugi zaitetzte!

Euskal Autonomi Erkidegoko egurrezko eta pelleteko kalderentzako diru laguntzak hilabete honetan bukatzen dira eta.

· BIOMASA
· AEROTERMIA
· GEOTERMIA
· EGUZKI ENERGIA
· TERMIKOA

IRTENBIDE ENERGETIKO
BERDEAK

Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa

Dirulaguntzak tramitatzen ditugu

Zaldubasa Industrialedea - 2 - IRURITA (BAZTAN) 948 580 109

ZERBITZU TEKNIKOKO
BARRAZTARTE OFIZIALA

TATANO

